

Gipuzkoa

Deba

Erdigunea Casco urbano

UDALAZOKA MERCADO MUNICIPAL



Ekipamendu publikoak eraikitzea sustatzen zen tesuinguruan, Debako Udalak astero-astero egiten zituzten azoketarako eta tartean behin antolatzen zituztenetarako eraikina egin zuen; toki babesa, eguraldi zakarra egiten zuenerako, eta, aldi berean, estalitako pasealeku publiko gisa ere balioko zuena (halaxe dago idatzita eraikinaren fatxadan). Hala, Manuel Etxabek Deba eta Zumaia arteko errepidearen alboko orube bat aukeratu zuen 1905ean, atzealdeko fatxada Eusko Trenbideetara zuela. Eraikin irekia da, oinplano angeluzuzena eta terraza erako estalkia dituena; era berean, puntu erdiko arkuak ditu, zutabeetan oinarrituta. Dekorazio-elementuen artean, nabarmentzekoak dira errematean ageri den balaustrada eta zutabeen apaingarriak (ebakidun eta erliebedun motibo geometrikoak, molduradun idulkiak eta ordena korintiarreko kapitelak, taulamenduan molduradun errosetarekin errematatuak). Arkitektura eklektikoaren adibide bikaina da eta xx. mendearen lehen hamarkadetan estilo definitua sortu zuen arkitektura zibilaren edota obra publikoaren alea. Estilo honen adibideak gero eta urriagoak dira. Monumentu izendatu zuten 1995ean.

Inmerso en el contexto general que impulsaba la edificación de equipamientos públicos, el ayuntamiento de Deba construyó el mercado, ideando para ello un lugar protegido de las inclemencias del tiempo donde celebrar los mercados semanales y las ferias periódicas, y que sirviera al mismo tiempo para paseo público cubierto, tal y como se recoge en la inscripción grabada en su fachada. Manuel Echave eligió para su construcción, en 1905, un solar junto a la carretera Deba-Zumaia, con su fachada trasera hacia la vía de los Ferrocarriles Vascongados. Se trata de una edificación abierta, de planta rectangular y cubierta aterrizada, con arcos de medio punto apeados en columnas. Destacan como elementos decorativos la balaustrada de remate y la ornamentación de las columnas, ya mencionadas, con motivos geométricos incisos y en relieve, pedestales moldurados y capiteles inspirados al modo corintio-romano, rematados en el entablamento por rosetas molduradas. Es un buen ejemplo de arquitectura ecléctica, además de un elemento propio de la arquitectura civil o de la obra pública que creó un estilo definido en las primeras décadas del siglo xx, estilo del que cada vez son más escasos los ejemplos. Fue declarado monumento en 1995.